

ETXEKO GAUZEN IZKETA



Etxeak, euskalduna bada batez be, zati asko dauz: atari, eskaratz, ate, leio, gela, korta, ganbara ta abar. Zarata gozoz deika daukaguz oneik, goizean eguna argitzean txindorra lez. Konturatzen zara, maite, orrein ezkutu-dei eztsizuz? Etzara bakarrik, inguruan lagun asko dituzu. Ta onein ixil-jarduna bai samurra! Ona, gaurkoz, zer diñotzun:

Atariak.—Izenez eder naz; izatez ete? Ataria nozu ta edonok, sartu-urtetan, zapaltzen nau, ta iñori be ez yako atsegin oinpeko izatea. Baiña bateren batek izan bear, ta emen naukazu ni arri-losa-sail apala, barrukoak eta kanpokoak banatzen ditudana.

Antxiñakoa naz; asaba zarrak, atx-arteko arrobotik, ondo landuta, ekarri ninduen. Asko ikusia naz bene-benetan, bai zorion bai zoritxar. Nik be zorion-aldian barre egin oi dot poz-atsegiñez; zoritxar-aldian, ostera, negar-malkoak darie ene soin minbera zear. Etzara egundo konturatu?

Nire gain datoz oin guztiak, bai ta garbiketak be. Ez naz origaitik lotsatzen ez alatzen, ezta kezka bizi. Abere ta piztiak, orraitino, ez yataz eder, txakur ta katu izan ezik. Oneik bai adiskide ditut, naiz saltari naiz eguzkitan etzanik lizunkoi: txakura jagole dot, ta euliak uxatzen daustaz katuak. Besterik ez yat begiko; nire inguria korta ezta, giza-toki baiño. Bakoitzari ondo dagokio berea, ni senar-emazte, seme-alaba ta umetxoai, korta edo okullua aberai. Abere ta antzekoak or dabe eskorta. Ez bediz onaiño eldu.

Garbi-zale amorratua nozu: baiña sarri askotan eztabe nire bizkar gain eskobarik, ez erratzik erabilten; au da, ez nabe garbitzen, ta ba-dot zokondoetan loa ugari, amarauna ta abar. Ardura bako batzuk ementxe itxi oi dabez, beste egal batera eroan bearrean, makiña bat tresna ta tramankulu be, burdi, golde, lauortzeko, nabasai, otzara, sega, itai, buztarri... Iñoiz egur-meta biurtu oi nabe.

Oraindik be baserri askotan lekurik zikiñena naz, zoritxarrez. Nigandik eltzaz batera, nok ez ditu oiñak igurtzika garbitzen, aurrera sartu orduko. Ertz aparteko baten egingo ba'lebe, zer esanik bez; baiña ainbeste satz lur, edur, lupetz eta basa, gaiñera jaurtirik. nire gain-gaiñean eta erdi erdian iztea be ez deritxat egokiena.

Baiña dana ezta ulu ta illeta jotea. Ba-ditut pozaldi galantak be. O nire aopeko izketa entzungo ba'zeunkie, zelako ta zenbat gauza esane neuskizuezan! Etxe barruko neskatx maratza adiskide miña dot aintxiñatik; begi-uridin ta matrailgorri, iñok baiño geiago aretxek damostaz egizko atsegiñak. Goizean uretara edo Mezatarara doanean, aren biotz-taupada gozoa. Egia esan, batzuetan miñez dauka biotz ori, baiña geienik artega ta urduri, urretxindor antzera. Arek izan oi dau ni garbitzeko ardura, ta zelako ardura! Nire poza, olakoaaren esku guriak, erratz bigunez, lepoa igurtzi da roastanean! Goxo-goxo atz egiten yakon katua baiño pozago egoten nare. Zuok neskatil eta etxeko-andra zoliok, arren, emoidazue atsegin ori!

Udabarri eltzean, ba-dot beste pozbide bat be. Elai ta egaberek dator kidaz. Aren egada bizkorrak! Zenbat gauza diñostazen! Urriñetik etorri ala, abigiñan asten dira; ta orduko txilio gozo ta egon-eziña! Nire gaiñek abe-azpian polito eratu dabe euren abitxoa, basa ta zotzez. Amearen zolita suna gero arrautzak zaindu ta epeltzen! Bazterretan ba-dira gaur zeregin orretan ama eztiranak, baiña elaiak beti ditut ama, benetako ama. Ta umeak azi ta egaz abiatzean? Nok neurtu arein poza?

Oindiño ba-dodaz beste adiskide txiki batzuk be: umetxoak. Onein ez panetako irripar extia! Orain ariñeketan, gero geldi, beti jolasketan. Ta sarri gurasoak begira, zoratuta lez. Ikuskizun ederragorik! Ez uxatu ni gandik umetxorik; ez, otoi. Eguna astean, eguzkiaren izpi-dantza eder ya tala, umetxoen eguneroko jolas bakana begi-betegarriago yat. Bai, orixe. Ta, arren, itxi umetxoak neure inguruan, barre ta zantzo-algaraka; goi naiz arrats, dabiltzala ementxe, naitara.

Bostgarrenez diñotzut: ataria naz, atari zabaia. Dana dala, gora edo beera, ara edo ona doala, nigandik igaroten da. Baiña nekez geratzen da luzaro; ni igarobide nau edonok. Geienez igon ta sartu egin oi da nire bitartez. Igon; sukaldeko bizitza, zer ete? Kanpoko gauzen gaiñetik igotea. Oiñak jaso, gorputza gero, ta ondoren barruan, arimea be, igarri barik gora doa, beeko gauzen gaiñez.

Ederto, ederto. Zuok kanpotik zatozenok, astindu lupetz eta lur; nigandik igarotean, itxi or gurari makur guztiak be. Neuk askatzen zaituet ar dura-sorta astun ortatik; aurrerago, bada, jauretxea asten da, sukaldeko jauretxea. Ta or ezta sartzen, gorputza ta biotza garbitu barik. Orrela be...